

LURRALDEA ETA ARKITEKTURA

AA



ULA IRURETAGOIENA

A dimen Artifizialak nola eraldatuko du arkitektura-lana?

Diseinu eta marrazketako software konpainiak izango dira une honetan galdera modurik zehatzenean erantzuteko egokienak, zeren eta informatikako programen etorkizuna beraiek zehaztuko dute eta arkitekto-erabiltzaileek hirugarren digitalizazio-egokitzapena egin beharko dute. Langile asko dituzten arkitektura-enpresak ongi informatuta egongo dira gailu berria zer egiteko gai izango den, zein kostu izango duen ezarpenak eta zenbateko aurrezpena (denboran eta bezar soldatetan) ekar lezakeen.

Esaten da, digitalizazio belaunaldi berriarekin eraikinen 3 dimentsiotako modelizazioa eta sortutako irudia mugimenduan ikusaraztea ohikoa izango dela. Renderrak sortzeko arotik, ingurumen birtualak diseinatzeko modu berri bat aurreikusten da, eta ahots bidezko marrazketa-mandatuekin burutuko dira (agur ikonoak). Eraikinak errealtate birtual moduan "ikustea" eta eraikinetik nabigatzea erraza izango da, sofistikazio gutxiko lanaren emaitza bezala. Gainera, sortutako irudia beste informazio eta datuekin gurutzatzeko aukera emango du, prezioa eta CO2 isurpen kantitateak kalkulatzeko, adibidez. Magia hau egingo duten programen kostuez ez da ezer esaten, ezta lana burutzeko erabiltzen den informazio profesional konfidentziala eta pribatua nola kudeatuko den ere.

Arkitektoaren lanean, AA tresna digitalak diseinuak sortu ahalko ditu, baina diseinuaren egokitasuna eta arauaren interpretazioa ordezkatzea zaila izango da. Zeren leku, egoera eta pertsona zehatzek behar dutena identifikatzeko sentsibilitatea gizakiaren esku dago. Egoera jakinerako zein arau aplikatu behar den eta datuen arabera zein den erabakirik "eraginkorrena" makinak esan badezake ere, informazio iturri bat baino ez da izango, gehienetan teknikari baten irizpidearen esku dagoelako azken erabakia, edo negoziaketa eta adoste prozesu baten esku. Lan batzuk errazteko tresna izan daiteke akaso, baina zaila du beste hainbeste lanen ordezkapena burutzea. ●



EH BILDU

Euskara "hizkuntza nazionala"

ONINTZA IRURETA AZKUNE

EH Bilduk hizkuntza politika berri baterako proposamena (*Indarberritze aro berri bat irekitzeko hizkuntza politika berria*) aurkeztu du apirilaren 27an. Bere militanteekin eta adituekin elkarbanatu ondoren jakinarazi dutenez, ia aho batez onartu dute aurrera begirako estrategia.

Hizkuntza politika berriaren marko estrategikoa definitzerakoan ideia nagusi bat azpimarratu dute: euskara da Euskal Herriaren hizkuntza nazionala, eta euskaratik eta euskaraz ardaztuko den Euskal Herri eleaniztuna da helburua. Euskara da berezko hizkuntza. Herriarrak euskaraz eroso bizi daitezen "jauzi kualitatiboa" eman behar dela gehitu dute. European, estatu hizkuntzek eremu juridiko, politiko eta soziolinguistikoan duten estatus eta berdintasunezko egoera bera aldarrikatu dute euskararentzat.

Euskara berdintasun egoerara eramateko bidetzat aurkeztu dute *ekitate* kontzeptua, eta ildo horretan, azpiratze egoeran dagoen hizkuntza berdintasun egoerara eramateko, "ekintza positiboaren konpentsazio marko bat garatzea" proposatu dute. Euskarari espazio hegemonikoak ematea da xedea, alegia, hizkuntza baten funtzio nagusiak osotasunez garatuko diren eremuak sortzea eta babestea. Bide hori egiteko, "estatus juridiko berri baten beharra" azpimarratu dute, "hizkuntza nazionalari egiazko berdintasuna emateko ezinbesteko zorua". Berdintasunezko

egoera lortze bidean, hizkuntza esku-bideak giza eskubide indibidual eta kolektiboan mailan jarri dituzte. Eskubide guztiak elkarren "osagarri eta banaezinak" direla diote. Hizkuntza eskubideak "komunitate nazionalaren eskubideekin" lotu dituzte eta euskararen aldeko borroka "berdintasunaren eta justiziaren aldeko borroka unibertsala" dela jaso dute txostenean.

EH Bilduk bost herri erronka aurkeztu ditu. Lehenik eta behin, euskararen ezagutza unibertsalizatzea. Bide horretan, euskara ezagutzeko eskubidetik euskara ikasteko eskubidera bide egitea proposatu du; baita D eredia eraldatzea eta etorri berrientzako hizkuntza-harrera diseinatzea ere.

Bigarrenik, hainbat funtzio, espazio eta lurraldetan euskara nagusi izateko apustua egitea, eta bide horretan, 0-16 urte artekoen aisialdian eta administrazioan euskara nagusi izateko estrategiak garatzea proposatu dute.

Hirugarrenik, ezagutzan gora egiteko eta espazioak irabazteko, hizkuntza azpiegitura oso bat eraikitzea, alegia, azpiegitura teknologiko, ikus-entzunezko, kultural eta mediatiko berri bat diseinatzea.

Laugarren erronka, horri guztiari "erregia ematea" da, eta hizkuntzarekiko atxikimendua eta motibazioa lantzeko lirateke.

Azkenik, erronka horiek gauzatzeko beharrezkotzat jo dute "arkitektura juridiko gaurkotua" egitea, "politika publiko aurreratua" egin ahal izateko". ●